

MAITEA KANTA-GAI

Jainkoak sortutakoa., oro eder. Lur-itxaso ta zeru, bai noski edertasuna naroro! Zapa-zapa dirudi ereiña. Guztio-tatik ez dut kaxkarrena gizonari laguntzat eman zion emakumea. Nik dudana beiñik bein olakoxea da, on, eder, maratza. Ez da, beraz, arrigarri nik noizpenka berori abestea.

Doñu: «Uso txuria aidean...».

Nere maitea langille
beti daukat nik etxean,
bera langorik ezin idoro
naiz-ta ibilli garatzean (1);
biotza dizu eskerga,
nagirik ez du soiñean.

Ezkondu nintzan egunez
etxera nuen zoria:
begiak ditu argi-ñirñirka,
aoak dixur ezta;
etxean dut abaraska,
bai eta bizitz-argia.

Iru aurtxo dizkit eman,
beste ainbat ekarriko;
ez dut ortikan sabel irendu.
ezta ere sein-gabeko:
ziur aski nik ez dut nai
idor danik neretako.

Osorik nai du besarka
aberats-iturri dana,
ortako badu zentzu zolia

(1) Usaika.

umetan artu zuana;
arlo oituan dabil eta
pozik dagi bere lana.

Begira: mundu osoa
maitezko sutan daukazu,
maitasunak du dena meartzen,
asko diranak giltzatu,
dardaraz giza-barnean
otzik dagona kaldata (2).

Bakarrik nabil lanean?
Otoz-otoan datorkit
gogapen alai: nere maitea
urbil dudala dirudit;
onek ziurki goiz ta arrats
arnas berri damakit.

Aren oroiz dena dakust
ederrez kuin-kuin jantzia,
etxe barru ta etxetik kanpo
iruditzen zait guztia
artzeko deiez daukadan
sagasti igalez zuria.

Maitearen besarkadan
—suzko lokarri leunean-
guztia digart loretu naiez
udaberri esnatzean,
baita neguak jelaren (3)
arnas itsa (4) bialtzean.

(2) Piztu.
(3) Izotz.
(4) Ubel.

Besarka orren beroa
altsua baita ziuurki:
umeak irri, oianak txalo,
kortako txalak ikoti...
Nik ere diardut pozik
lanari lotuz osoki.

Bego bai etxe aldea
lorenz loratan lertzer!
Aur ta emazte betí aurrera
etxeko zaindari eder:
gure maitasun giroa
ezpei iñoiz ere soil, alper!

LAN ET.:

*Udaldian gagoz. Uztailla. izadi osoa edertasunez jantzia,
mendi, zelai, baso ta ibar. Nere baserri aldean, ordea, lana
dut ugari; orain ez daukat itzalean etzanda lasa egoterik.
Lanari ekin bear diot, gogotsu.*

Doirlu: «Brabanteko Jenobeba...».

Indarrak badu berea dun lana,
gauza astunak jasotzea:
arri bat gora indarka jaurtiz,
gorantza du joerea...
Gorengo maillan xixtua amaituz
utzi oi dizu igotea,
ta berriz ere beerantza dizu
bere berezko jotzea.